

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

117/2025 prozedura arruntean epea jartzea

Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako 1. sekzioan administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (117/2025 zenbakiko prozedura laburtua) izapidetzen ari da; R0100007D IFZ zenbakidunak aurkeztu zuen errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Udalaren 2024ko abenduaren 20ko erabaki baten kontra (2024ko abenduaren 27ko ALHAO, 146. zk.), zeinaren bidez behin betiko onetsi baitziren 2025eko ekitalditik aurrera indarrean egongo diren Ordenantza fiskalak eta prezio publikoak, zeinetan 6.3 puntuan jaso baitira hiri-hondakin solidoak bildu eta suntsitzeko zerbitzuagatiko tasak. Hortaz, horretan interesdun direnei ager daitezen deitzen zaie, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluari jarraituz; bederatzi eguneko epea izango dute horretarako, lege beraren 23. artikuluen ildotik.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, haxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko ekainaren 26an

Udal legelaria

MARÍA LUISA RODRÍGUEZ GARAY